



Argazki oina argazki oina argazki oina argazki oina argazki oina argazki oina argazki oina.

Egun bat lehenago hasi dira festak, jarduera guztiei lekua egiteko

Bi asteburu, zortzi egun eta hamaika proposamen. Aieteko jaien aldeko apustu garbia egin dute, adin tarte guztientzako jarduerak eskaintzeko. Txupinazoa botata, aurreneko asteburua azken urteotakoa bezain arrakastatsua izatea espero dute.

✂ Inaxio Esnaola Aranzadi
📷 Aieteko jai batzordea

Bat gehiago eta bat gehiago. Aieteko jaiak atzo hasi ziren, gaurtik aurrerakoaren erritmoa mantentzeko eta bizitzeko. Aieteko jai batzordeak jarduera sorta antolatu du lehen astebururako. Beste horrenbeste prestatu du Lantxabe auzo elkar-teak bigarren astebururako. Luzea da egitaraua, baina ahalik eta ondoen orekatzen ahalegindu dira.

Festen iraupen luzeagoaz aparte, bestelako berritasunak ere badituzte. Batez ere, bi dira esanguratsuenak. Batetik, eraso matxisten kontrako protokoloa abian jarri dute. Bestetik, Aieteko festen bereizgarri izan nahi duen garagardo artisau propioa aurkeztu dute. Naparbier garagardo enpresarekin elkarlanean sortu dute. Beraz, zintzurak freskatzeko ohiko

edariez gain, Aieteren ikurra daraman bat dastatu ahalko da.

Lide Marquet eta Garazi Lasa jai batzordeko kideak pozik daude osaturiko proposamen sortarekin. Egitarauari beste egun bat gehitzearen arrazoiak azaldu dituzte. «Oste-guna sartzearen arrazoietakoa bat da asteburua oso motza geratzen dela, eta egitaraua luzatu nahi izan dugu adin tarte guztiengana iristeko», dio Lasak. «Jaietako lehen ostiralean nahiko larri ibili izan gara, sartu nahi genituen jarduera guztiak sartzeko eta horiek aurrera eramateko. Orain, gauzak lasaiago egin ahal izango ditugu», gehitu du Marquetek.

«Oso betea»

Egitaraua oparoa eta «oso betea» dagoela aitortu dute biek, baina haur, gazte zein helduek dagokien bakoi-tzarekin gozatzeko modua eta lekua izango dutela. Gaurko, biharko eta etziko egunak dira jardueraz bete dituztenak, normalean, arrakastatsuenak direlako. Aurten, ordea, biharko eguna izango omen da erakargarriena.

«Egia esan, ez dakigu. Azken urteotan, ostirala izan da arrakastatsuen, baina aurten aldatuko dela dirudi», adierazi du Lasak. «Normalean ostiralean izaten dira kontzertu erakargarrienak, eta larunbata gehiago izan da auzoko jendearentzat. Aurten, egia da, inguruko askok esan digutenez, larunbatean etorriko dela jendea. Bi egunetan etorriko dira, baina orekatzen hasi dira», nabarmendu du Marquetek.

Festen lehen larunbatean, hau da, bihar, hainbat nobedade txertatu dituzte. «Poteo musikatua sartu dugu, gazteen arteko giroa indartzeko. Bazkalosteko mojito lehiaketa eta bingoa ere badaude, eta Zumbonak ere. Uste

Lehen ostirala izan da azken urteotako arrakastatsuen. Aurten, ordea, aurreneko larunbatean espero dute jende gehien

dut lortu dugula adin tarte guztiek lekuak eta proposamenak izatea. Jarrauerak toki desberdinetan antolatuta», azaldu du Marquetek.

Bi asteburu

Aieteko jaiak erraz bereizi daitezkeen bi asteburu desberdin dituzte, elkar loturik badaude ere. «Lehena jai batzordeak antolaturikoa da, gazteei eta haurrei begirakoa. Bigarrena, berriz, Lantxabe auzo elkartearena, helduei eta adinekoei eskainitakoa gehiago. Horrela, egitarau orekatua lortu dugula uste dut. Bakoitzak bere proposamenak antolatu ditu, eta, gainera, lagundu diegu. Gainera, kirol txapelketa gehienak bigarren asteburuan dira», dio Marquetek.

Hain zuzen ere, txapelketa asko antolatzen dituzte, Aieten oso lehiakorrek direlako? «Hori ematen du. Badirudi auzoan gutxi garela, baina ez gara horren gutxi», aipatu du Lasak. «Txapelketetan jende askok parte hartzen du, beraz, horiek mantendu eta indartu ditugu», gaineratu du Marquetek. ●



OSTIRALA 12

16:00

Futbolin Txapelketa, Etxadi tabernan.

17:00

Tute eta txintxon finalak, Topalekun.

Txirikorda tailerra, NOA ileapaindegian.

17:30

Erretratu tailerra, Hiru Damantxo plazan.

Aiete CUP finalak, ikastetxean.

18:30

Askaria, Hiru Damatxo plazan.
'Aladin y la lámpara maravillosa' pelikula, Kultur Etxean.

Auzo kalejira, Mamis-etxetik abiatuta.

21:00

Zezen-suzkoa, Munton.

22:00

Kontzertuak Jolastokin: Putas Amak + Txiltxoko & P. Rose + Ahantzi erromeria.


02:00

Sokasalto herrikoia.



Ondo pasa
Aieteko jaietan!

SOLASEAN LOGOPEDIA
www.solaseanlogopedia.com
Tel. 696 745 270
Borroto 16 (Etxadi), Aiete
Donostia, 20009



LARUNBATA 13

11:00

Aieteko III. Kros Txikia, Aieteko parkean.

12:00

Lindy Hop, Jolastokin.

Paella lehiaketa, Jolastokin.

14:30

Herri bazkaria, Jolastokin.

16:00

Bingoa, Jolastokin.

16:30

Mojito lehiaketa, Jolastokin.

17:00

Aieteko danborrada, auzoan zehar.

17:15

Entzierro txikia, Aieteko parkean.

17:30

Pultsera eta koilare tailerra, Aieteko parkean.

18:30

Zumbonak, Jolastokin.

19:00

Kanpai-hotsak, Parrokian.

19:30

Txiki-festa eta Karaokera, Jolastokin.

22:00

Futbolin txapelketaren finala, Etxadi tabernan.

00:00

DJak Jolastokin.

IGANDEA 14

11:00

Meza nagusia, Parrokian.

Estropadak pantaila handian, Jolastokin.

12:30

Aieteko VI. patata tortila txapelketa, Jolastokin.



14:30

Herri jolasen sari banaketa eta bazkari herrikoia, Topalekun.

OSTEGUNA 18

19:00

Coro Easo txikia eta Eskolania, Sagar plazan.

OSTIRALA 19

17:00

Txikientzako txokoa, Otxanda plazan.

Gazteentzako txokoa, Munto plazan.

17:30

Apar festa, Hiru Damatxo plazan.

19:00

Tropikala festa (Duo Braso), Aiete tabernan.

LARUNBATA 20

09:00

Padel txapelketako finalak, Kiroldegian.

11:00

Aieteko II. KM Bertikala, Aieteko parkean.

3Txulo txaranga, auzoan zehar.

Matxain bolo txapelketa, Jolastokin.



13:00

Toka txapelketa, Jolastokin.

13:30

Sari banaketak, Jolastokin.

16:00

Mus txapelketa, Topalekun.

18:00

Kiki, Koko eta Moko pailazoak, Sagar plazan.

18:30

Cum Jubilo eta Easo abesbatza, Miramonen.

19:00

Erromeria, Katxola baserrian.

IGANDEA 21

10:30

Diana Udal txistulariekin, auzoan zehar.

11:00

Kantu jira eta bertsolariak, auzoan zehar.

14:30

Herri bazkaria, Topalekun.



Ondo pasa jaietan!

Arostegi Kalea, 10, 20009 Donostia. 943-31 60 66

